

# Ezpalak

JON TORNER

**Patxi Zubizarreta** eta Irati Jimenezek irabazi dituzte euskarazko Donostia Hiria sariak. Antzerki sailekoa lehengoak eskuratu du, *Ohe desatseginak* lanarekin, eta ipuin sailekoa bigarrenak, *Laranja azalaren negarra* lanari esker. Gaztelaniazko literaturaren alorrean, Lu Pardo Varela eta Antonio Maurizen *El cuarto oscuro* lanari eman diote antzerki saileko saria, eta Ignacio Ferrandoren *Simetrías* kontakizunari ipuin sailekoa.

**Nestor Basterretxea** eta Carmelo Ortiz de Elgea artisten lanez osatutako erakusketa paratu dute Donostian, Kutxaren Kursaleko Kubo aretoan. *Denboraren joanean* izeneko erakusketan 93 obra daude ikusgai, 55 Nestor Basterretxearenak eta 38 Carmelo Ortiz de Elgearenak. Erakusketa apirilaren 13a arte egongo da zabalik.



**Giuseppe Verdi** konpositore italiarrari (1813-1901) buruzko liburua argitaratu du Opera Lagunen Bilboko Elkarteak (OLBE): *Por Amor a Verdi. Vida, imágenes y retratos*. 2001ean italieraz plazaratu zuten lan hori. Marco Maricaren testuez gain, argazkiak, marrazkiak eta kartelak ere bildu dituzte bertan. OLBEko bazkideek doan jasoko dute liburua, eta gainerakoek 35 eurotan izango dute salgai.

**Barricada** taldeak zilarrezko etzeiak ospatzeko *Barricada. 25 años de rocanrol* disko-liburua



kaleratu du. Telebistan eskaini dituzten emanaldiez osatutako bi DVD eta beste bi CD jaso dituzte lan berrian. Bestalde, Barricadak hasi du jada *Otra noche sin dormir* bira.

**Jon Kortazar** idazlea Rosalia de Castro aitortzarekin saritu du Galiziako Pen Klubak. Irailean jasoko du saria Santiago de Compostelan, Rosalia de Castroren jaiotzaren 171. urteurrenean.

## Internet, bertsotarako plaza



Bertsolaritza eta Internet uztartzen dituzten hainbat ekimenen berri izaten ari gara egunotan. Batetik, Bertsozale Elkarteak [Bertsoplaza.tv](http://Bertsoplaza.tv) webgunea sortu du. Bertsoak zein elkarriketa eta erreportajeak ikusentzuteko aukera eskainiko du gune berriak. Kalitate handiko bideoak dira, *Hitzetik Hortzera* saioak grabatutakoak batzuk, eta Xenpelar Dokumentazio Zentroan bildutakoak besteak. Bestetik, Bertsoa.com webguneak *Plazatik zuzenean* ekimena jarri du abian. Astero bertso saio bat zuzenean emango dute Internetez. Azkenik, Unai Elizasuk *Gai-jartzailearen aulkitik* bloga (<http://gai-jartzailea.blogspot.com>) sortu du. Txapelketetako gaiak, egiturak, aholkuak eta bestelakoak bilduko ditu bertan.

## “Andresare” webgunea sortu dute

**EUSKO IKASKUNTZAK** Euskal Herrian emakumeek egindako eta emakumeen inguruan sortutako azterlanak ardatz izango dituen Andresare webgunea (<http://andresare.eusko-ikaskuntza.org>) jarri du abian. Feminismoaren eta generoaren alorreko eduki ugari jasoko du, lauzpabost ataletan banatuta. Hainbat emakumeren (historialarien, ikertzaileen...) biografia eta curriculumak, dokumentuak, albisteak, agenda eta loturak bilduko ditu, besteak beste.

**Lourdes Mendez arte antropologoak Berrian:** «Oraindik ez zaio emakume artista bakar bati ere aitortu mugimendu edo korronte artistiko baten aitzindari izatea eta jarraitzaileak edukitzea. Eta badago halakorik egin duenik. Behar-beharrezkoa da emakume artistek egin duten lanarekin osatzea artearen historia, benetan artearen historia izango bada».

**Asier Hormaza aktoreak Diario de Noticias de Alavan:** «Ziur naiz Bardem bezain aktore onak badirela, baina inoiz ez dutela Oscar bat irabazteko aukerarik izango, ez daudelako merkatu batean, industria batean. Lanbide honetan guztia erlatiboa dela ikasten duzu. Guztia ez dago kateatuta. Prest izatea, zure lana ahalik eta ondoen egitea eta ez obsesionatzea da

gakoa. Ni inoiz ez naiz Madrilera joatearekin edo hau ala hori egitearekin obsesionatu. Egiten dudanarekin zoriontsu naiz eta gauzak iristen diren neurrian iritsiko dira».

**Xabier Alberdi historialariak Garan:** «Jakintza ondare bezala hartzen badugu, gu analfabeto hutsak gara, gureari buruz oso gutxi dakigu-eta. Egoera hau herri honetan dugun egoeraren ondare ere bada, hala ere; frankismoa hortxe dugu... Gauza asko geratu da bidean. Euskal Herrian ondare artistiko ugari dugu; ez dugu Versailles bezalako jauregirik, baina herri askotan garai hartako ondare diren jauregi txikiak daude. Loiolako Basilika Vatikanoko txiki bat da eta haien [Elkano eta Urdaneta bezalako itsasgizonen] lanari zor diogu hein batean».

## Teknologia modernoa tradizio zaharren gordailua izan daiteke

*Berrizko folklorea*. 93 min.

(Bizkai Euskal Folklor Elkarte, 2007)

Euskal dantza tradizionalen tradizioak gero eta leku gutxiago duela salatzen baliatu zuen Bizkai elkarteak *Berrizko folklorea* DVDaren aurkezpena, joan den otsailaren 26an. Horrek ez ditu ezustean harrapatu dantza mundua eta, batik bat, Bizkai ezagutzen dutenak, bilbotar taldearen aspaldiko leloa baita. Interesgarriagoa izan daiteke agian salaketarekin batera egindako proposamena, alegia, Durangaldean dantza eskola sortzea, betiko moldeak gordetze aldera.

Betiko molde horiek *Berrizko folklorea* dituzu ikusgai. Bizkaiko herri horretako San Lorentzo taldeak emanda, Durangaldeko dantzari-dantza eta soka-dantza osorik agertzen dira DVDan. Orain 200 urte egiten ziren bezala, edo ia. Sabin Egiguren Bizkai elkartearen presidentearen esanetan, gaur egun ez dago, Euskal Herrian, dantzari-dantza Berrizko talde horrek bezain ondo egiterik. Baina erne, zenbait aje sumatzen hasia baita Egiguren berriztarren jardunean. Huts txikiak, baina huts. Durangaldeko dantza maisu zaharrek erreleborik ez izatearen ondorio mikatza.



Hala ere, hirietako dantza taldeak —edo talde kaletarrak, esan diezaiegun— ditu “jomugan” Bizkaik. Balletaren eraginez, besteak beste, “desitxuratu egin dute dantzari-dantza”. Egiguren *dixit*. Beste edozein euskal dantzaz esan zezakeen —eta esan egiten du— gauza bera. Mezu hori *Berrizko folklorea* ere bada, antzinako dantzari eta txistularien ahotan. Joandako garaik beti hobe.

DVDa, bestalde, oso erakargarria suerta daiteke mundu hori maite dutenentzat, eta beharbada apur bat astuna urrunagotik ikusten duenarentzat. Lehen zatiak elkarriketak, koplak zaharrak eta bestelako agiri interesgarriak biltzen ditu batez ere; bigarrenean, berriz, dantza hutsa aurkituko duzu, tradizioa desitxuratzen duen kutsaduraz biluzik. Dantza hutsa, eta ona.

UNAI BREA

www.bertsozale.com

sentitu  
gozatu  
astindu

## Arabako bertsozale trapeketa 2008

1. FINALERDIA

**Martxoak 9**  
ONDATEGI<sub>n</sub>  
Zigoitiako  
Zentro Soziokulturalean  
17:00etan

**Babesle nagusiak:**

**Antolatzaileak:** Arabako Bertsozale Elkartea

**Laguntzailea:**